



72. zk | 2020ko maiatza

# Berbarotarra

## ZELAN ZAUDETE?

Aurtengo udaberriko Berbarotarrean ezin izan dugu gure egitasmoez normalean moduan idatzi. Koronabirusak eragindako osasun krisia tarteko, martxoa erdialdean utzi genuen Pinondoko bulegoa, eta etxetik gabiltza beharrean, egoerara zelan egokitu pentsatzen. Berbaroren lanean pertsonen arteko harremana oso garrantzitsua denez, gure berri emateaz gain, ingurukoak zelan dauden jakiteko aprobeixatu gura izan dugu ale berezi hau. Bazkide guztiak ondo izango zaretela espero dugu, laster ikusiko dugu elkar, animo!

## “Guztiaren gaineratik ume, gazte eta hezitzaileen osasuna dago”

Markel Sanchez Zelaia Berbaroko kudeatzaileak azken hilabeteotan bizi izan dugun egoerari buruzko galderak erantzun ditu

**la hilabete bi dira Pinondoko bulegotik irten girela. Zelan eragin du osasun larrialdiak Berbaroren egunerokotasunean?**

Hasiera-hasieratik etxetik lan egiteko erabakia hartu genuen, eta horrela jarraitzen dugu orain ere. Bulegoko lana sasi-normaltasun batekin egiten dugu, eta bilerak bideodei bidez. Hau dela eta, elkartearen barne funtzionamenduak normal jarraitzen du, eta baita euskara zerbitzuek ere, nahiz eta gauza asko aurrez aurre ezin diren egin. Kaltetuena ume eta gazte arloa izan da, proiektu denak zuzeneko esku-hartze edo dinamizazioarekin lotuta daudenez, gehien-gehienak bertan behera gelditu direlako. Zerbitzuak bertan behera geratzeak elkartearen diru-sarrerara handi bat gutxitzea ekarri du, eta kolpe gogorra izan da gure ekonomiarentzako. Dena dela, hainbat aukera aztertzen gabiltza egoerari ahalik eta hoberen erantzuteko.

**Zer proiektu eta zerbitzu daude momentu honetan martxan?**

Esan dudan moduan, euskara zerbitzuen arloa martxan dago, Durangoko Udalean zein Amankomunazgoan, egoerara ahal bezain ondo egokituz. Ume eta gazte arloan ere, badira bertan behera geratu ez diren hiru proiektu: Elorrioko Gurean proiektua –euskara errefortzua-, Iurretako Etxego Gaztelekua eta Amankomunazgoak sustatzen duen KLAK proiektua.

Bestalde, Etxealditik Euskaldira dinamika bultzatzen aritu gara, eta sare sozialetara arrakasta handia izan duten bi jolas birtual plazaratu ditugu, euskarazko aisialdian eskaintza berriak zabaltzeko ezohiko egoera honetan.

**Ardura nagusienetako bat udalekuena da.**

Horrela da, bai. Udako kanpaldiek pisu handia dute Berbaroen urteko jardunean,



## BERBARO

ume eta gazte asko mugitzen ditugulako, eta ez dakigu haiek egiteko moduan egongo garen. Astero informazioa berria jasotzen dugu, eta hau esaten nabilenetik irakurriko duzuen arte, gauzak asko aldatu daitezke. Momentuz esan dezakedana da hainbat aukera aztertzen ari garela, dagoen informazioarekin eskenatoki posibleak aurreikusituz eta plan desberdinak pentsatzen. Guk gure esku dagoen guztia egingo dugu udalekuak egin ahal izateko, baina argi dugu guztiaren gaineratik ume, gazte eta hezitzaileen osasuna dagoela. Hartzen dugun erabakia hartzen dugula, oinarri horren gainean izango da.

**Pertsonekin bertatik bertara egon ahal izatea garrantzitsua da Berbaroren jardunerako, ezta?**

Argi dago. Uste dut Berbaro Elkartearen bertuteetako bat dela hurbiltasuna, eta aspaldi honetan urrunago sentitzen gara, arraro. Desiatzen gaude egoera normaldu eta berriro ere aurrez aurreko harremanetara bueltatzeko.

**Zure ustez pandemiarekin lotutako krisi ekonomikoak eragin handia izango du euskalgintzan?**

Beste arlo guztietan bezala, gurean ere izango du eragina. Beldur naiz oraingoan ere ez ote den euskara lehenetsunetan azkena izango agintarientzako. Horrela bada, hemen gaudela eta euskararen aldeko dinamiken beharra aldarrikatzea tokatuko zaigu.

**Plateruenako egoera hobeto ezagutzeko bertoko kultur arduradun Ihintza Orbeagoz Igartuarengana jo dugu.**

**Zelan zaudete kafe antzokiko langileak?**  
Osasunez ongi gaude, baina egia da etorriko denarekin arduratuta gaudela. Badakigu laster ireki ahalko dugula, baina baldintzak zorrotzak dira eta zalantza asko dauzkagu oraindik funtzionamenduaren inguruan.

**Badirudi ostalaritza eta kulturgintza bereziki kaltetutako sektoreak izango direla krisi honetan...**

Hala da, jarduna eteten lehenak eta itzultzen azkenak izango dira, eta neurri zorrotzekin gainera. Horrek gastu gehigarri bat suposatuko digu, eta era berean errentagarritasuna murriztagoa izango da. Jendeak izan dezakeen beldurra ere hor dago, beraz, gu lanerako gogotsu bagaude ere, guztion bultzada beharrezkoa izango dugu.

**Euskal Herriko kulturgintzan grebarako deia egin zenuten eta elkargune bat eratzeko asmoa sortu da. Indartuta iriteteko aukerak ikusten dituzu?**

Hala espero dut! Etenaldi honek indarrak batzea ezinbestekoa dugula hausnartze-ko aukera eman digu. Badut esperantza, gainera, jardunera itzultzean jaialdi handi eta atzeritarren birak ikustea zaila



**“Etenaldi honek indarrak batzea ezinbestekoa dugula hausnartze-ko aukera eman digu”**

**PLATERUENA**

izango denez, euskal kulturak, eta bereziki sortzaile berriek, ikusgarritasuna irabazi eta merezi duten lekua aurkituko dutena.

**Udazkenean kultur agenda beteta izango dugula uste duzu? Zelan imajinatzen duzu “normaltasunerako” buelta?**

Usterik gabe, udazkeneko agenda beteta daukagu jada, eta guztia aurrera erama-

tea espero dugu. Mailakatua izango dela diote behin eta berriro, eta esan dute jada aforo murriztuarekin eta segurtasun neurri bereziak hartuz hasiko gara- la ekainean, beraz, ez da erraza izango hasiera, baina dena ondo badoa, udazkeneko ekitaldiak normaltasunez egiteko esperantza daukagu, beti ere, hartu beharreko neurri guztiak hartuta.



**ANBOTO**

**“Inoiz baino beharrian handiago dago kalitatezko eta gertuko informazioa eskaintzeko”**

**Ezohiko albisteak eman ditu azken asteotan Anbotok; koronabirusak eskualdeko egunerokotasunean eragindako aldaketen kronika egiten ari dira. Euren egoera hobeto ezagutzeko, Anbotoko zuzendariari, Jone Guenetxea Arrindari egin dizkiogu galderak.**

**Zelan eragin du alarma egoerak Anbotoko langileen egunerokotasunean?**

Hasieratik uztartu gura izan dugu langileen osasuna eta informatzeko dugun konpromisoa. Gehienok etxetik ari gara lanean. Bestalde, kazetaritzaren ikuspuntutik, inoiz baino beharrian handiagoa dugu kalitatezko eta gertuko informazioa eskaintzeko.

**Tokiko hedabideek audientzia igoera nabarmenak izan dituzue interneten.**

Bai, krisi sasoi batean, herritarrek zuzenean eragiten dien informazioa jakin gura dute, eta tokiko hedabideetara jo dutela ikusi dugu Tokikomen batuta gauden hedabideok. Datu bat ematearren, Tokikomeko webguneetako trafikoa %97 igo da iazko sasoi honetako datuekin alderatuz. Paperari dagokionez, banatzaileen osasuna bermatzeko aleak puntu estrategikoetan uzten ari gara, okindegiatan, kioskoetan eta zabalik dauden dendetan. Orain, faseka garatzen ari den bide honek banaketan zein eragin izango duen aztertzen ari gara.

**Koronabirusaren kontu honekin, informazio faltsu eta bulo ugari dabil bolobolo. Zer egin daiteke horrelako albisteen aurrean?**

Egunotan sare sozialei begira gaude denok. Informazioa geroago eta gehiago zabaltzen ari da, baina geroago eta zailagoa da informazio faltsua zein den bereiztea. Nahaste horretan kalitatezkoa eta fidagarria den informazioa lantzen dugun hedabideon erreferentzialtasuna inoiz baino garrantzitsuagoa da. Euskal hedabideen audientzien gorakada testuinguru horretan kokatuko nuke.

**Tokiko hedabideen Tokikom elkarteko presidente ere bazara. Pandemiak eragindako krisi ekonomikoak eragin handia izango du herri komunikabideetan?**

Krisi honek sektore guztiak kolpatu ditu, eta gurea ere bai. Gainera, kontuan izan gertuko hedabideon publizitate sarreak tokiko merkataritzara oso lotuta daudela. Abuztura arteko aurreikuspenak eginda, Tokikomeko hedabideon artean diru-iturri propioen fakturazioan (batez ere publizitatean) 2,5 milioi euroko galera izango dugula kalkulatu dugu. Testuinguru zail honetan, neurriak hartu beharko ditugu. Hala ere, beste egoera zail batzuetan egin dugun legez, oraingoan ere elkarlanean aurrera egingo dugu.



## GUREAN ERREFORTZU SAIOETAKO KIDEAK

Arratsaldetan euskarazko errefortzu saioetan parte hartzen duten ume eta gazteak ez ditugu aspaldi ikusi. Zelan ibiliko ote dira? Mirari Zugazartaza Aramburu hezitzaileari eta Marie Odile Ndongi umeari bidali dizkiegu galderak. Laster izango gara berriro, aupa zuek!

Mirari Zugazartaza Aramburu:

**“Modu asko ditugu elkarrekin komunikatzeko, baina ez da gauza bera”**

**Zelan moldatu zara etxean irten ezinik?**

Egunaren arabera. Hasieran kostatu egin zitzaidan, ez naiz etxean asko egoten denetakoa eta lehengoko egunetan apur bat aldapan gora egin zitzaidan. Gero egoerara ohitu nintzen, eta uste baino hobeto! Ikasketekin eta etxean antolatzen izan

ditugun ekintzekin nahiko entretenituta ibili naiz. Hala ere, egun batzuetan umorea eta baikortasuna ez dira hain onak izan, baina egoerari aurre egitea besterik ez zaigu gelditu.

**Zaletasun berririk garatu duzu?**

Egia esan nire egunerokotasunean ez dut egin nahi dudana hori egiteko denborarik, eta egun hauetan burutu ditut. Zaletasun berririk ez dakit, baina margotzen eta irakurtzen ordu asko eman ditut.

**Zer sumatu duzu faltan?**

Gauza asko dira faltan botatzen ditudanak, jendearekin egotea, adibidez. Egia da gaur egun modu asko ditugula elkarrekin komunikatzeko, baina ez da gauza bera. Kalean edonon gustora egotea ere izan dut faltan.

**Zermoduz joan dira lehen irteerak?**

Primeran. Desiatzen egon naiz kalera irteteko eta egin dudanean oso ondo sentitu naiz. Orain egoera beste umore batekin ikusten da eta egunean behin kalera irteteteak asko egiten du.

**Lagunen bat ikusi duzu kalean?**

Bai eta ilusio asko eman dit horrek. Kontaktuan egon naiz egunero berarekin baina ez da berdina eta egun askoren ostean aurrez aurre berarekin topatzea...karkarkar. Orokorrean gertukoak diren edo nire egunerokotasunean ikusten ditudan pertsonak ikusteak emozionatu egin nau.

**Egoera honek gauza berezirik irakatsi ditu?**

Ezetz esango nuke, naizen bezalakoa izaten jarraitzen dut. Agian egoera

desberdinetara moldatze hori, uste nuena baino hobeto egon naizelako, nahiz eta egun batzuetan agobiatuta sentitu. Baina ez, orokorrean ez.

\*\*\*\*\*

Maria Odile Ndong:

**“Hobe da eskolara joatea etxean gelditzea baino”**

**Zelan moldatu zara etxean irten ezinik?**

Ondo, hobeto da etxean gelditzea, ez oso arriskutsua da koronabirusa.

**Zaletasun berririk garatu duzu?**

Liburu bat irakurri dut eta jolas berri batzuk inbentatu ditut.

**Zer somatu izan duzu faltan?**

Gauza asko: lagunak, Pinondo, eskola, irakasleak...

**Zermoduz joan dira lehen irteerak?**

Oso ondo, oso pozik egon naiz.

**Lagunen bat ikusi duzu kalean?**

Oraindik ez.

**Egoera honek gauza berezirik irakatsi ditu?**

Bai, hobe dela joatea eskolara ez gelditzeko etxean.

**Durangoko zer txoko bisitatuko duzu gustora?**

Joan naiz Kurutzia gako museora, baina gustatuko zait joatea bisitan berriro.

# Etxetik detektibe-lanetan



Konfinamenduan aisialdirako proposamen pila jaso dugu internet eta sare sozialen bidez. Horrelako eskaintzak euskaraz egotea beharrezkoa dela iritzita, Berbarotik jolas birtual bi plazaratu ditugu. Jolas horietan misterio bat argitzeko hainbat proba gainditu behar dira logika erabiliz.

Ehundaka herritarrek parte hartu dute bi detektibe-jolasetan. Lehenengoan, Eneko Sagardoy aktore durangarraren heriotza misteriozua argitu behar izan dute, eta bigarren jolasa, berriz, Plateruena kafe antzokiaren bueltan sortutakoa da; haren ordez fabrika bat jarri dutela eta

Plateruena bere lekura ekartzeko probak gainditu behar dituzte detektibeek. Behar izanez gero, probetan laguntzeko pista batzuk ere badituzte eskura.

Familian, lagun artean zein bakarka jolastu daiteke bi jolasetara, eta oso harrera ona izan dute Berbaroko misterioiek: 'Nork hil du Eneko Sagardoy?' jolasean 1.000 partida baino gehiago jolastu dira eta 'Non dago Plateruena?' erronkan, berriz, ehundaka dira dagoeneko jolastutako partidak.

Oraindik jolastu ez baduzue, gure webgunean eta sare sozialetan aurkitu dituzue. Zorte on!



## Itxialdian ere, Euskaraldia martxan!

Aurtengo udazkenean Euskaraldiaren bigarren edizioa izango dugu. Ezaguna zaigun Ahobizi eta Belarripresten dinamikaz gain, oraingoan ahalegin berezia egingo da entitateak ere ekimenean inplikatu daitezten eta ariguneak sor ditzaten (euskaraz lasai aritzeko guneak).

Durangon 2020arekin batera hasi ginen berriro martxan, erronka berriari helitzeko ilusioz; baina, lehen pausuak eman orduko, etxean gotortu behar izan gara. COVID-19ak ez du, dena dela, Euskaraldia gelditu, eta azken egunotan, bolo-bolo ibili da sareetan #Etxealditikeuskaraldira egitasmoa: hamalau egunez, gure hizkuntza ohiturei erreparatu eta horietan eragiteko hainbat proposamen zabaldu dira han eta hemen, etxean bertan praktikan jartze-koak guztiak.

Ez dakigu bizi dugun egoerak nola eragingo dion Euskaraldiari, baina gauza bat argi daukagu: hitz egiteko gai garen artean, aldaketa eragiteko gai izango gara, eta bihar kalean egingo duguna, gaur etxean hasi behar dugu.

## Larrosa eta Arantza

### Larrosa

Berbalagun taldeak aupatu gura ditut. Hauek ere teknologiaz baliatu dira euskara praktikatzeko. Talde txikiak herrika batu dira betiko lez, baina espazioa aldatu dute eta ziberespazioan lekua egin diote euskarari. Gutxi ez bada ere, eta espazioa amaigabea denez, Euskal Herriko Topaketa birtuala ere antolatu dute. Bertan, herri askotako mintzalagunak, mintzalkideak eta ikasleak... euskaldunak batu ziren maiztaren 3an.

Zibergela guztiak bete ziren! Beraz, espazio fisiko-tik haratago euskarak badu presentzia.

### Arantza

Koronabirusak hizkuntza hautuak ere agerian utzi ditu.

Ausartuko naiz baieztatzen zientzia alorreko gaietan eta osasun arloan bereziki, "erdaraz hobe badaezpada ere", edo erdaraz euskaraz gaitasun gutxi dagoelako, edo zientzia ikasketa eta argitalpen gehienak erdaraz direlako, edo... Kontua da, ze, euskal komunitateko txiolari askok erdaraz txiokatu eta bertxiokatu dutela iruditu zaidala.

Komertzio txiki askok ere teknologiarari jo dute, eta, besteak beste, whatsapppe, instagramez, baliatu dira dendako produktuak saltzeko. Jaso ditut mezu batzuk eta beste batzuk kuxkuxeatu ere bai: erdara nagusi denetan. Osasun eta ekonomia krisi honetan publizitatea eta informazioa erdaraz hobe, badaezpada ere.

# Etxean egiteko proposamenak

## PUXIKA BAT ZEHARKATU, LEHERTU GABE

### MATERIALA

- Puxika bat.
- Zotz luzea.
- Olioia

### METODOA

1. Hartu puxika bat, puztu eta korapilo bat eman ez lotu.
2. Zotza olioztatu.
3. Zotza korapiloaren aldamenetik sartu kontu handiz.
4. Zotzarekin puxika zeharkatu eta urrunen dagoen puntutik atera.



#### Azalpena:

Puxika bat airez betetzean, bere barne tentsioa areagotu egiten da, baina hau ez da uniformea. Puxikari korapiloa egindako tokian eta haren kontrako aldean gertatzen dira tentsio gutxien duten eremuak, eta horregatik zeharkatu ahal izaten da puxika hortik, lehertu gabe.

## JAUSTEN EZ DEN URA

### MATERIALA

- Kristalezko edalontzi luze bat.
- Karta bat, edozein.
- Ura.

### METODOA

1. Hartu edalontzi luze bat, eta bete urez goraino doi-doi, gainez egin gabe.
2. Edalontzia betetakoan hartu karta bat, eta eman buelta, buruz behera gelditu arte.



#### Azalpena:

Esperimentu honetan uraren pisuak eta presio atmosferikoak kartarengan eragina dute. Presio atmosferikoa uraren pisua baino handiagoa denez, gorantz bultzatzen du karta, eta horregatik ez da ura jausten. Argi ibili, ordea! Karta mugituz gero, dena isuriko da!

## TALOA (Itzartu Gazte Taldeko errezeta)

### OSAGAIK

- Arto irina 100g pertsonako (Garate baserria, Izurtza)
- Gatza
- Ur epela
- Gehigarriak aukeran: txokolate beltza %70, txorizoa ur eta sagardotan egosia, txistorra frijitua, hirugiharra, gazta.
- Olioia.



#### Pausoak:

Arto irina mahaian zabaldu. Pitxerra ur epelarekin bete eta gatz pixka bat bota. Ondo nahastu. Bol erdia irinez bete eta apurka ura bota. Eskuekin nahastu. Orea egin da dagoenean, tenis piloten tamainako bolatxoak egin. Eskuak irinez zikindu eta bolatxoei kolpeak ematen hasiko gara, suabe. Forma ematean ez arduratu izkinatan arrakalak zabaltzen badira. Ahalik eta talo mehean egiten saiatuko gara. Forma eman eta gero, espatularekin kontuz hartu eta plantxara!

## OGIAREN ERREZETA

### OSAGAIK

- Ogi irina, 250 gr
- Irin integrala, 250 gr
- Ur epela, 300 ml
- Gatza, 10 gr
- Okinaren legamia, 10 gr
- Olioia (orea moldean ez itsasteko).



#### Pausoak:

Bol baten irina, gatza eta legamia nahastu. Nahi izanez gero, haziak ere bota ahal dira (sesamoa, adibidez). Gero, ur epela bota eta dena nahastu, ore nahiko biguna sortu arte. Gutxienez bi orduz gelditu eduki trapu batekin estalita. Orea hazi egingo da legamiari esker. Berrito mugitu haizea kentzeko eta beste 20 minutuz gelditu izan. Tostadak egin nahiez gero, molde bat olioarekin eta irin apur batekin igurtzi eta bertara bota orea. Labean 35-40 minutu eduki 180 gradutan. Hozten utzi eta gero jan. On egin!